

## **Azken berriak ikasturte berriari begira**

Gainerako kolektiboetan bezala, garbiketako eta sukaldaritzako ordezkapenak irailaren 7an betetzen hasiko direla jakinarazi digu Hezkuntza Sailak. Gogoratu Irailean, zerrendetako sukaldaritzako hautagaiek justifikaziorik gabe uko egin diezaieketela jasotzen dituzten eskaintzei.

*Bestalde, garbiketako eta sukaldaritzako lanpostu huts guztiak irailaren 1ean bete dira.*

*Ikasturte hasierari dagokionez, honako gai hauen berri emango dizuegu:*

- Garbiketako Covid-19ko errefortzuak 2021eko irailaren 7an hasiko dira, iaz errefortzua izan zuten ikastetxe guztietan. Obra edo zerbitzu jakineko kontratuak izango dira, % 50ean (4 ordukoak). Kontratu horiek 2022ko ekainaren 21ean amaituko dira, baldin eta ikastetxeak irekita badaude eta ikasleek ikastetxeetara joan behar badute.
- Sukaldaritzako Covid-19ko errefortzuak urriaren 1ean hasiko dira, jantokiko laguntza-kontratuak esleitu ondoren.. Aurreko ikasturtean bezala, obra edo zerbitzu jakin baterako kontratuak hauek, % 25ean (2 ordukoak), eta 2022ko ekainaren 21era arte egongo dira indarrean, salbu eta —osasu-arrazoia direla-eta— jantokiak ixten badira.

**Iaz bezala, LAB sindikatuak eskatu du kontratu hauek gutxienez jardun erdikoak eta eskola bakoitzaren behar eta ezaugarrien arabera egokituta izan daitezen. COVID errefortzuak eskatu behar badira Zuzendaritzari eskatzeko esan.**

- Errelebo-kontratuak urriaren 1ean eskainiko dira. Kontratu horiek euskara ikasteko liberazioengatiko ordezkapen-kontratuekin batera eskaintzen saiatuko dira.

Ikasturte berriaren hasierari begira, ikastetxe bakoitzean oso alderdi garrantzitsuak hartu behar ditugu kontuan, urte osoan gure lana baldintzatuko dutenak:

- Ikasturte hasiera bakoitzean laneko egutegia Ikastetxe bakoitzean adostu behar da, eta gero kolektiboko langileen egutegia egokitu. Oso garrantzitsua egutegi hauek sinatzea, horretarako eredu bat bidaltzen dizuegu.
- Sukaldean, mahaikideen ratioen arabera laguntza kontratuak eskatu behar ditugu, dieta bereziak, bazkaltziarrak, txandak zenbatu behar ditugu, eta kontuan izan behar dugu urte osoan eska dezakezuela ratioa berrikustea, baldin eta aldaketak badaude.
- Lakuatik dagoeneko jakinarazi diete zentroei, obrak garbitzeko aurrekontu-partida bat dagoela, eta, Saileko langileak ez direla arduratu behar garbiketari horietaz.

LAB sindikatuak 2018ko martxoaren 6an sinatutako akordioa sinatzeari esker, lanpostu berriak sortu dira: garbiketari, 6, eta sukaldeetan, 1. Horretaz gain, euskara ikasteko 30 liberazio ere esleituta daude.

LABetik Kolektiboaren lan baldintzak hobetzeko lan hitzarmen berriaren negoziazioaren irekiera eskatzen jarraituko dugu.

**Gogoratu LAB Irakaskuntzako web orrian Sukaldaritza eta Garbiketako atala daukazuela:**

[www.irakaskuntza.lab.eus](http://www.irakaskuntza.lab.eus)

<https://irakaskuntza.lab.eus/sutagar/>

**Zalantzak badituzue jarri gurekin harremanetan.**

**ANIMO ETA AURRERA !!**